



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO APIRILAREN 24EAN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/03/27.

Batzarkideek, 2018ko martxoaren 27ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- USURBILGO OIARDO KIROLDEGIKO INSTALAKUNTZEN ERREFORMARAKO,
EGOKITZAPENERAKO ETA BIRGAITZERAKO OBRA (01 FASEA (A)) BURUTZEKO
LIZITAZIOA DESERTU DEKLARATZEA.**

Esp. zk.: ID.05/2018-0078

IKUSIRIK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko otsailaren 27an bilkuran, prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Usurbilgo Oiarde kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako obra burutzeko (01 FASEA (A)) obra kontratua esleitzeko kontratazio espedienteari onespena eman zion.

2018ko martxoaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazio iragarkia argitaratu zen eta 29 egun naturaleko epea ireki zen proposamenak aurkeztu zitzaizten.

Proposamenak aurkezteko epean, ez da bat bera ere aurkeztu.

KONTUTAN HARTURIK

- 2018/04/16ko Kontratazio Mahaiaren proposamena.
- Sektore Publikoen Kontratuen Testu Bategina arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

LEHENA: Usurbilgo Oiardo kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako obra burutzea (01 FASEA (A)) hutsik geratu dela zehaztea.

BIGARRENA: Iragakia GAOran bidaltzea eta udal web orrian (Kontratzailearen Plataforman) horren berri ematea.

3.- KALEZARKO SOKORROKO ANA BIRJINAREN ERMITAREN ONDOKO SANTUTXOA BIRGAITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. zk.: HZ.06/2017-0641

USURBILGO SALBATORE PARROKIAREN ordezkartzan diharduen Ibon Alberdi Urrestarazu jaunak aurkeztutako eskaera aztertu dut (Esp. Zenbakia: HZ.06/2017-0641). Bertan, Kalezarko Sokorroko Ana Birjinaren Ermitaren ondoko santutxoa birgaitzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 22.645,09 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 129,54 €
	Fidantza (%120): 155,45 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko martxoaren 12an ALDEKO txostena eman du. Mantenua eta Zerbitzuak saileko buruak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak bere aldetik, 2018ko apirilaren 13an, azpiegiturei dagokion txostena eman du.

Hauek kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: USURBILGO SALBATORE PARROKIAREN ordezkartzan diharduen Ibon Alberdi Urrestarazu jaunari, Kalezarko Sokorroko Ana Birjinaren Ermitaren ondoko santutxoa birgaitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintza bereziak betetzekotan:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 129,54 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (155,45 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena




Usurbilgo Udala

aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

155,45 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza-hondakinak: HZ.06/2017-0641*” jarriaz kontzeptuan.

- Ibai Kerejeta Otxotorena eta Igor Emparan Martínez arkitektoek 2017ko abenduan (EHAEO 2018-01-05) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Mantenua eta Zerbitzuak saileko buruak ezarritako baldintzak beteko dira:
 - Aurkeztutako proiektuko I1 planoaren arabera, euri urak lurzorura bideratzen dira. Eraikuntzaren alboan euri uren azpiegitura kokatzen dagoenez, saneamendura bideratzea proposatzen da, lotuneko puntuan kutzeta bat eraikiaz. Tapa errefortzatua izango da.



- Santutxoa argitzeko luminaria herriko argikuntza publikotik hornitzen da.



Usurbilgo Udala

- Jarriko den luminaria eta instalazioa behe tentsioko erregelamenduaren arabera instalatuko da, eta baimendutako instaladoreak gauzatuko du.
- Obra amaitutakoan, eraikitako azpiegituren planoak aurkeztuko dira, DWG eta PDF formatoan.
- Eraikuntzaren egikaritzan Usurbilgo Arau Subsidiarioek, EKT-k eta aplikaziozko araudiak ezartzen dituen baldintza eta irizpideak bete beharko dira bere osotasunean.
- Obra baimenaren epeak:
 - OBRAK HASTEKO EPEA: berehala
 - OBRAK EXEKUTATZEKO EPEA: 6 hilabete
 - OBRAK GELDITUTA EGON AHALKO DUTEN EPE GEHIENGOA: hilabete bat.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera EKT betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.
 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun Udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.



Usurbilgo Udala

- Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Aldez aurretik obrari dagokion udal zerga ordainduko da.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.”

4.- TGBK, 2017KO IRAILAREN 12AN, USURBILGO LANBIDE ESKOLAN 4.0 PRESTAKUNTZA LANTEGI BERRIA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2016-0277

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko irailaren 12an, zera erabaki zuen: USURBILGO LANBIDE ESKOLA ikastetxearen ordezkartzan diharduen XABIER AGIRRE ALZURU arkitektoari, lanbide eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeke eraikitzeke udal baimena ematea.

Geroztik ordea, USURBILGO LANBIDE ESKOLA ikastetxeak, emandako baimena bertan behera uztea eskatu du 2018ko otsailaren 23an aurkeztutako idatziaren bitartez.

Gauzak horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko irailaren 12an, USURBILGO LANBIDE ESKOLA ikastetxearen ordezkartzan diharduen XABIER AGIRRE ALZURU arkitektoari, lanbide eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeke eraikitzeke udal baimena **BERTAN BEHERA** uztea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

5.- USURBILGO LANBIDE ESKOLAN 4.0 PRESTAKUNTZA LANTEGI BERRIA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2017-0399

ZUBIGUNE FUNDAZIOAK (IFK: G75051698), Zubietako lanbide eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko udal baimena eskatu, Exekuzio Proiektua aurkeztearekin batera.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	195.769,63 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 3.105,33 €
	Fidantza (%120): 3.726,40 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Zubietako lanbide eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko Oinarrizko Proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituraren Azkune andereak, 2017ko abuztuaren 17an ALDEKO txostena eman zuen.

Orain berriz, 2018ko otsailaren 23an aurkeztutako Exekuzio Proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2018ko martxoaren 12an ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK

**USURBILGO LANBIDE ESKOLAN 4.0 PRESTAKUNTZA LANTEGI BERRIA
ERAIKITZEKO EXEKUZIO PROIEKTUARI TXOSTENA**

KOKAPENA: Usurbilgo Lanbide Eskola, SGED-6, Usurbil.

ESKATZAILEA; ZUBIGUNE FUNDAZIOA

ESKAERA DATA; 2018ko otsailaren 23a

ESPEDIENTE ZENBAKIA: hz.04/2017-0399

EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 195.769,63euro.

HONDAKINEN KUDEAKETA: 3,105,33euro FIDANTZA(%120): 3,726,40euro

1. AURREKARIAK

- 2017ko uztailaren 26an Usurbilgo Lanbide Eskolaren izenean bertan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko baimen eskaera egin da.
- 2017ko abuztuaren 17an udal arkitektoaren aldeko txostena.
- 2017ko irailaren 12an Tokiko Gobernu Batzarrak udal baimena eman zion 2018ko otsailaren 23an Zubigune Fundazioak exekuzioa proiektua aurkeztu du.

2. TXOSTENA



Usurbilgo Udala

Zubigune Fundazioak Usurbilgo Lanbide Eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko exekuzio proiektua aurkeztu du, arkitektoak izenpetua eta dagokion elkargoak ikus-onetsia. Eskaera orrian 2017ko irailean Usurbilgo Lanbide Eskolaren izenean jasotako udal baimena Zubigune Fundazioaren izenera aldatzeko ere eskatu du. Proiektua osatzen dutenak dira: I liburukia: memoria eta eranskinak; II. Liburukia: Azterketa geoteknikoa eta Instalazio Elektriakoaren Proiektua; III. Liburukia: Aurrekontua eta Eraikinaren Erabilera eta Mantentze Liburua; IV. Liburukia: Baldintza Plegua eta planoak. Aurkeztutako planoetan ikusi da Oinarrizko Proiektuko Planoak ez direla Exekuzio Proiektuan barneratu, beraz, Exekuzio Proiektuaren eduki osoa bi proiektuen artean jasotzen dela esan beharra dago.

Exekuzio Proiektuak baimena jasotako Oinarrizko Proiektuaren parametroak mantentzen ditu eta bere helburua ere Oinarrizko Proiektuaren berdina da:

“La escuela profesional de Zubieta tiene previsto adquirir una máquina de mecanizado de última generación destinada a la formación de sus alumnos en las nuevas tecnologías relacionadas con el mundo industrial.

En este sentido, los responsables del centro han propuesto, ante la necesidad de contar con un espacio adecuado para la instalación de esta máquina, la sustitución del actual taller existente y la posterior construcción de un nuevo taller de formación.”

“ El edificio cuenta con dos plantas sobre rasante y se adosa al actual edificio de los talleres al igual que el edificio precedente que se elimina.”

Usurbilgo Lanbide Eskola Zubietan kokatzen da, SGED 6 Sistema orokor izendatua egonik indarrean diren AASSTB-ren arabera.

Dokumentazio aztertuta honakoa esan daiteke:

- **HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA:** Esan bezala SGED-6 Sistema orokorrean kokatzen da Usurbilgo Lanbide Eskola eta ondorioz, aplikaziozkoa zaio hari dagokion hirigintza fitxa.

parametroa	SGED 6 HIRIGINTZA FITXA	OINARRIZKO PROIEKTUA
Azalera eraikia	400 m2ko okupazioa plantan duen hazkundera	BETETZEN DU
lerrokadurak	Ikus planoak	BETETZEN DU
profila	PB+2	BETETZEN DU

- **EKT eta RITE-aren BETEZEA:** Justifikazioa aurkeztu da. Obraren egikaritzan ere bete egin beharko da.
- **JARDUERA BAIMENA:** Jardueraren aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharko da jarduera ezartzeko. Ohartarazten da, indarrean den araudiaren arabera ezinbestekoa dela jarduera bat martxan jartzeko dagokion baimena



Usurbilgo Udala

jaso edota aurretiazko komunikazioa egitea eta beraz, lehenbailehen Lanbide Eskolaren jarduera aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen da.

- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa aldatu egin da Oinarrizko Proiektuan aurkeztu zenarekiko, Exekuzio Proiektuaren arabera 3.105,33€-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (3.726,40€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- **AZPIEGITURAK:** Zerbitzuetako buruaren txostenera bideratzen da
- **ZUINKETA AKTA:** Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri beharko da eta udal aparejadorearekin ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.
- **BAIMENAREN TITULARTASUNA:** Eskatera orrian 2017ko irailean jasotako udal baimena Zubigune Fundazioaren izenera aldatzeko eskatu da. Aldaketa hau kontu-hartzailletza sailera jakinarazi beharko da, eta baita Exekuzio Proiektuan jasotako PEM eta Hondakinen Kudeaketako Fidantzari dagozkion kopuru berriak ere.
- **BESTEAK:** Obren egikaritzak ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.). Horren inguruan, esan beharra dago, txosten honetan aipatzen ez den gabezia edo lege hausterik balu proiektuak, txosten honek ez duela inplizituki ontzat ematen eta ezinbestean, obra egikaritzan zuzendu beharko dela.

3. ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, Usurbilgo Lanbide Eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko Exekuzio Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio, honako baldintzapean:

- Azpiegiturei dagokienez zerbitzuetako buruaren txostena eskatzen da.
- Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri beharko da eta udal aparejadorearekin ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.
- Indarrean den legediaren arabera jarduera martxan jartzeko ezinbestekoa izango da jardueraren aurretiazko komunikazioa egitea. Horrekin batera, lehenbailehen Lanbide Eskolaren jarduera aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen da.
- Obren egikaritzak ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.).

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.



Usurbilgo Udala

Usurbilen, 2018ko martxoaren 12an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Exekuzio Proiektua aztertu ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2018ko apirilaren 12an honako txostena eman du azpiegiturei dagokionez:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA

ESKAERA: Eraikuntza proiektuko Zerbitzuak eta Mantenuasailari dagozkien azpiegituren txostena.

ESKATZAILEA: Hirigintza saila

KOKAPENA: Usurbilgo Lanbide Eskola

ESP. ZENB: HZ.04/2017399

TXOSTENA

Zubietan kokatzen den Usurbilgo Lanbide Eskolan egin behar duen eraikuntzaren Zerbitzuak eta Mantenua sailari dagozkien azpiegituren txostena eskatzen du Hirigintza sailak.

Eraikiko de eraikuntzaren azpiegiturak, bere eremu barneko berrikuntzak dira, eta ez dute lotuerik Usurbilgo Udaleko Zerbitzuak eta Mantenua sailaren azpiegiturekin.

2018ko apirilaren 12an
Mantenua eta Zerbitzuak saileko burua
Felix Aizpurua Arzallus

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: ZUBIGUNE FUNDAZIOARI (IFK: G75051698) arkitektoari, lanbide eskolan 4.0 prestakuntza lantegi berria eraikitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.184,00 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2.620,80 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.



Usurbilgo Udala

2.620,80 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2017-0399*” jarriaz kontzeptuan.

- Obrak hasteko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin.
- AGM ARQUITECTOS SLP enpresako Xabier Agirre Alzuru, Enrique Munoa Fagoaga eta Unai Gamboa Moreno arkitektoek 2018ko otsailan (EHAE0 2018-02-20) idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- EKT-REN BETEZEA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA. Proiektuaren erredaktatzailearen erantzukizunaren baitan gelditzen da, ezinbestekoa izanik hura betetzea.
- JARDUERA BAIMENA: Jardueraren aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharko da jarduera ezartzeko. Ohartarazten da, indarrean den araudiaren arabera ezinbestekoa dela jarduera bat martxan jartzeko dagokion baimena jaso edota aurretiazko komunikazioa egitea eta beraz, lehenbailehen Lanbide Eskolaren jarduera aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen da.
- Obren egikaritzak ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.).
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainera jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafikoko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehieneko epea: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.



Usurbilgo Udala

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
- Obralanean Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.